

2019KO EKITALDIKO SOZIETATEEN GAINEKO ZERGAREN KANPAINA

OHIKO GALDERAK

Agiri honetan jasotzen dira ohiko galderak hartu den ezohiko den neurri batetaz, konkretuki onartu den Foru Agindua, zeinaren bidez onartzen baitira 2019an hasitako zergaldietarako, sozietateen gaineko zerga eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga (establezimendu iraunkorrei eta, atzerrian eratuak izanik eta Gipuzkoan presentzia edukita, errentak esleitzeko araubidean dauden entitateei dagokiena) autolikidatzeko erabiliko diren 200,220,20G eta 22G ereduak eta horiek aurkeztu eta ordaintzeko modua, epea eta tokia.

1. Bada kolektibo bereziren bat sozietateen 2019ko autolikidazioa 2020ko irailaren 1etik 25era aurkeztu dezakeenik?

Bai, badira kolektibo berezi jakin batzuk autolikidazioa irailean aurkeztu dezaketanak.

Kolektibo berezi horiek 2. galderan zerrendatuta agertzen dira.

2. Zeintzuk dira kolektibo berezi horiek?

Hauek dira:

- Mikroenpresak, enpresa txikiak eta enpresa ertainak, Sozietateen gaineko Zergaren 2/2024 Foru Arauaren (SZFA) 13. artikuluan aipatuak.
- Partzialki salbuetsitako entitateak, SZFAren 12.2 artikuluan arautuak.
- Mezenasgoaren aldeko pizgarri fiskalen 3/2004 Foru Araura bilduta dauden entitateak.
- SZFAren 14. artikuluan jasotako ondare sozietateak.

3. Kolektibo berezietako entitate batek uztailetik irailera bitartean aurkeztu al dezake autolikidazioa?

Ez, aukeran du uztailean edo irailean aurkeztea. Bi epe horietako bat aukeratu behar du. Uztailean aurkeztea aukeratzen badu, 2020ko



uztailaren 27tik aurrera egiten den edozein aurkezpen autolikidazio osagarritzat hartuko da.

4. Aipatutako 13. artikuluan jasotako mikroenpresa, enpresa txiki edo enpresa ertainaren baldintzak betetzen baldin ditu, uztailean edo irailean aurkeztu dezake. Baina, noiz bete behar ditu baldintzak?

Mikroenpresaren kasuan, entitateak mikroenpresaren izaera eduki behar du 2019ko ekitaldian; beraz, aurreko zergaldian (2018) bete behar ditu 13.1 artikuluan jasotako lau baldintzak. Horretarako, mikroenpresa izaera markatu beharko du aitortpeneko «Zerga araubide bereziak eta aitortpenaren ezaugarriak» atalean (74 laukia).

Enpresa txikiaren kasuan, berriz, entitateak enpresa txikiaren izaera eduki behar du 2019ko ekitaldian; horretarako, enpresa txikiaren izaera markatu beharko du «Zerga araubide bereziak eta aitortpenaren ezaugarriak» atalean (20 laukia). Beraz, 13.2 artikuluan jasotako lau baldintzak bete behar ditu aurreko zergaldian.

Enpresa ertainaren kasuan, aldiz, entitateak enpresa ertainaren izaera bete behar du 2019ko ekitaldian; horretarako, enpresa ertainaren izaera markatu beharko du «Zerga araubide bereziak eta aitortpenaren ezaugarriak» atalean (21 laukia). Beraz, 13.3 artikuluan jasotako lau baldintzak bete behar ditu aurreko zergaldian.

Gainera, kontuan hartu beharko dira SZFAren 13. artikuluan jasotako gainerako zirkunstantziak eta baldintzak.

Horiek horrela, 2/2014 Foru Arauaren 13. artikuluan jasotako beharkizunak bete behar ditu 2018an, 2019ko ekitaldian mikroenpresa, enpresa txiki edo enpresa ertainaren izaera edukitzeko.

5. Gipuzkoan talde fiskal batek (220 eredu) irailean aurkeztu dezake sozietateen gaineko zergaren autolikidazioa?

Bai, kolektibo berezi batekoa baldin bada (2. galderan zerrendatuta daude), uztailean edo irailean aurkeztu dezake autolikidazioa.

6. Gipuzkoako araudira bilduta dagoenean eta hainbat administrazioetan portzentajearen arabera tributatzen duen entitate batek Gipuzkoan irailean aurkeztu dezake sozietateen gaineko zergaren autolikidazioa?

Bai, kolektibo berezi batekoa baldin bada, uztailean edo irailean aurkeztu dezake Gipuzkoari dagokion autolikidazioa.

7. Kolektibo berezi batekoa den eta hainbat administrazioetan portzentajearen arabera tributatzen duen entitate batek Gipuzkoan irailean aurkeztu dezake sozietaten gaineko zergaren autolikidazioa?

Bai, kolektibo bereziko batekoa baldin bada, uztailean edo irailean aurkeztu dezake Gipuzkoari dagokion autolikidazioa.

8. Zeintzuk dira ordaintzeko datak?

Autolikidazioa 2020ko uztailaren 1etik 27ra bitarteko epean aurkezten duten entitateentzat, diru sarrera helbideratzeko data 2020ko uztailaren 28a izango da.

Autolikidazioa 2020ko irailaren 1etik 25era bitarteko epean aurkezten duten entitateentzat, berriz, diru sarrera helbideratzeko data 2020ko irailaren 28a izango da.

9. Aurkezteko dataren arabera da helbidetzeko data.

Kolektibo berezietako entitateek uztailean edo irailean aurkeztu dezakete autolikidazioa.

Autolikidazioa uztailean aurkezten bada, uztailean helbideratuko da. Autolikidazioa irailean aurkezten bada, berriz, irailean helbideratuko da.

10. Kolektibo berezietako entitate batek uztailean aurkeztu du autolikidazioa, baina diru sarrera irailean helbideratu nahi du.

Ezinezkoa da: uztailean aurkezten dutenentzat helbideratzea uztailean izango da.

11. 2020ko urtarrilaren 1etik otsailaren 29ra bitartean zergaldia amaitzen duten entitateek noiz aurkeztu behar dute autolikidazioa eta zein da diru sarrera helbideratzeko data?

a) Entitate horiei epe berezia jarri bazaie (hau da, kolektibo berezi batekoak badira), autolikidazioa 2020ko irailaren 1etik 25era bitartean aurkeztu ahal izango dute, eta, kasu horretan, diru sarrera helbideratzeko data 2020ko irailaren 28a izango da.

Guztiarekin ere, entitate horiek beti aurkeztu ahal izango dute autolikidazioa 25 egun naturaleko ohiko epean, zergaldia amaitu eta hurrengo sei hilabeteak bukatzen direnetik aurrera kontatuta, baina, kasu



horretan, autolikidazioa aurkezteko epea behin bukatuta helbideratuko da diru sarrera.

Beraz, autolikidazioa 6 hilabeteko ohiko epearen ondorengo 25 egunetan edo irailean aurkeztu dezakete.

b) Epea luzatu ez zaien entitateek, berriz, 6 hilabeteko ohiko epearen ondorengo 25 egunetan aurkeztu behar dute.

12. Zergaldia urte naturalarekin bat ez datorkionean eta abuztuan aurkeztu behar duenean, entitatea kolektibo berezi batekoa bada, irailean aurkeztu dezake?

Bai, eta kasu horretan diru sarrera helbideratzeko data irailaren 28a izango da.

13. Kolektibo berezietako entitate batek uztailean aurkeztu du autolikidazioa. Abuztuan edo irailean konturatu da akats bat egon dela, eta autolikidazioa aldatu nahi du. Zer egin behar du?

Aitorpen osagarri bat aurkeztu beharko du. Ondorio guztietarako, uztailean aurkeztutako lehen aitorpena epe barruan aurkeztutzat hartuko da, eta uztailaren 27tik aurrera aurkezten direnak aitorpen osagarritzat hartuko dira.

14. Autolikidazioa uztailean aurkeztera behartuta dagoen entitate batek (kolektibo berezietatik kanpo dago) uztailaren 27aren aurretik aurkeztu du. Uztailaren 27ko epea bukatuta, konturatu da akats bat egon dela eta autolikidazioa aldatu nahi du. Zer egin behar du?

Aitorpen osagarri bat aurkeztu beharko du. Programak antzemango du lehendik badagoela aitorpen bat, eta aitorpen osagarriaren laukia markatu beharko da «Zerga araubide bereziak eta aitorpenaren ezaugarriak» atalaren barruan (34 laukia).

15. Kolektibo bereziko entitate batek autolikidazioa irailean aurkeztea aukeratu du. Irailaren 25eko epea amaitu aurretik, konturatu da akats bat egon dela autolikidazioa aldatu nahi du. Zer egin behar du?

Ez badu aitorpena irailaren aurretik aurkeztu, irailaren 1etik 25eta doan epea izango du aitorpena borondatez aurkezteko eta, beraz, denbora tarte horretan egindako autolikidazioen bigarren aurkezpenak ordezkotzat hartuko dira.

Ordezko aitortpenak bakarrik kanpainaren epearen barruan aurkeztu ahal izango dira.

16. Kolektibo berezietako entitate batek autolikidazioa irailean aurkeztu du. Irailaren 25eko epea bukatuta, konturatu da akats bat egon dela autolikidazioa aldatu nahi du. Zer egin behar du?

Aitortpen osagarri bat aurkeztu beharko du.